



ASTEAZKENA

2021/01/13
9. urtea, 1.351. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €



«Jendeari pixka bat gehiago ahalegintzeko eskatuko nioke»

BEATRIZ UNZUE
AMASA-VILLABONAKO
ALKATEA

Eremu gorrian da Amasa-Villabona, eta ondorioz ostalaritza itxita eta sartu-irtenak mugatuta ditu // 2



IRATI SAIZAR

«Animatu egin gara, eta oso pozik gaude izan dugun harrerarekin»

ANA MUÑOZ ETA AMAIA EZEIZA BELAUNTZAKO OSTATUA

Bi urtez itxita egon ostean, abenduan ireki zituen ateak Belauntzako ostatuak, Iruran bizi diren Ana Muñoz eta Amaia Ezeizaren gidaritzapean; egoera ezohikoan irekitzea egokitu bazaie ere, «oso pozik» daude // 6



Beltzaren plazako eremua aisialdirako eta kirolerako egokituko dute. ENERITZ MAIZ

1.353.514 euroko
aurrekontua izango
du Amezketako
Udalak aurten

Pasa den urtean baino 34.654 euro gutxiago izango ditu, eta %26 azpiegitura berriak sortu eta daudenak hobetzera bideratuko du // 5

Otsabiko parkean mendi bizikletan aritzeko gunea erabilgarri // 4

Emaitza onak lortu dituzte Euskadiko Kopan Tolosa CF-ko atletek // 7



zozketak

Atarikideentzat **liburu bat** daukagu



Josu Ozaita antropologo ibartarraren **Piparra** liburua

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



Laika haur antzerkirako bi sarrera zozkatuko ditugu.

Urtarrilak 17, 17:00etan, Villabonako Gurea Antzokian.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



J.M.

«Denak jarri behar dugu gure aldetik; neurriak bete egin behar ditugu»

BEATRIZ UNZUE AMASA-VILLABONAKO ALKATEA

Astelehenetik eremu gorrian da Amasa-Villabona eta ostalaritza establezimenduak ixtearekin batera, udalerriko joan-etorri guztiak mugatuko dira araudi berriarekin

Jon Miranda Amasa-Villabona

LABIren batzorde teknikoak emandako aholkuak jarraituz ateratako dekretua argitaratu aurretik hitz egin du Beatriz Unzuek TOLOSALDEKO ATARIA-rekin. Atzo emandako datuen arabera, 100.000 biztanleko 692,92ko intzidentzia tasa metatua du Amasa-Villabonak. Arduratsu jokatze eta prebentzio neurriak hartzen jarraitze deia luzatu die alkateak herritarrei.

Behin eremu gorrian sartuta, zein neurri aplikatuko dituzue Amasa-Villabonan?

Bagenekien intzidentzia tasa gora zetorrela. Herenegun 500 positibotik gorakoa zela ikusita, Osasun sailetik hots egin ziguten hartu beharreko neurrien berri emateko. Nagusiki, ostalaritza establezimenduak itxia da agintzen dutena. Galdetu genien ea aurretiazko hitzorduarekin zer-

bitzua eskaini ote zezaketen eta baiezkoa erantzun ziguten. Ezin da tabernetara sartu baina hartu daiteke kafea eramateko eta ostalariek jatekoak ere zerbitzatu ditzakete, jendeak aurrez eskatuta. Gainerakoan, eskola kirola edota kirol taldeen entrenamenduak ere bertan behera geratu dira.

Ostalariekin harremana badeuzue?

Bai. Azaroko itxialdian etxera eramateko zerbitzua jarri zuten zenbait ostalarik martxan eta batzuk behintzat gustura zeuden. Martxoan eta azaroan, itxialdiak agindu zituztenean, diru laguntza lerroak zabaldu genituen ostalaritza establezimenduei bideratuta. Ikusiko dugu noiz arte luzatzen diren oraingo neurriak eta horren arabera aztertuko ditugu deialdi berriak egin edo ez. Egunero kaleratzen diren emailak ikusi beharko dira eta ea le-

henbailehen normal antzera ari-tzerik duten ostalariek, beti ere, ezarritako segurtasun eta prebentzio neurriak betez.

Nola antolatzen zarete udal-eremuek osasun krisiari aurre egiteko?

COVID-19 mahaia deitzen dioguna sortu genuen hartu beharreko neurriak gainerako alderdi politikoekin aztertze. Berriro eremu gorrian sartu garela ikusita eta egoeraren premiagatik ostiralean berriz biltzeko proposamena egingo dugu. Neurri bereziren bat hartu behar bada izan dadila denen artean adostutakoa, egoera honek horrela eskatzen du-eta.

Eremu gorri pasatzea, justu, LABIren batzorde teknikoaren azkeneko neurriekin batera etorri da.

Bai. Oraindik Eusko Jaurlaritzak ez du publiko egin dekretua (atzoko egunagatik). Oraingoz, aurretik eremu gorri pasatzen diren herrietan hartu beharreko neurriak hartu ditugu eta dekretua argitaratzerakoan jakingo dugu LABIk astelehenetik hartutako neurri berriak noiz aplikatuko diren gure udalerrian. Dakiguna da udalerriko konfinamendu perimetrala ezarriko dela, alboko udalerrirako igarobidea salbuetsi gabe gainera. Ezingo

gara Zizurkilera edo Andoainera joan, esate baterako. Horrekin batera, taldeko kirol-jarduera etengo da.

Zein informazio duzue neurri berri horien inguruan?

Astelehenetik bertan udaltzainak Ertzaintzarekin jarri ziren harremanetan joan-etorri horiek nola kontrolatuko diren jakiteko. Guk Amasa-Villabonako baliabideekin ezingo dugu kontrol lan hori egin. Dekretuaren zain gaude argibide zehatzagoak jasotzeko.

Eremu gorri pasatzea eta itxiko diren gainerako udalerrietako alkateek ontzat jo dute neurria. Zein iritzi duzu zuzen?

Birus arraro honi aurre egiteko denok jarri behar dugu gure aldetik; neurriak bete egin behar ditugu. Villabona ez badugu ixten, argi daukat hemengo jende guztia Zizurkilera, Irurara edo Andoainera joango dela. Horrela ez dugu ezer lortuko. Mugatu egin behar zaio bidea birusari eta muga horiek guk jarri behar dizkiogu.

Zein giro sumatzen duzu kalean?

Tabernak ixten dituzten momentuan kalea hilda geratzen da. Ez da inor ibiltzen eta merkatariek ere sumatzen dute hori. Esaten digute ez dutela ezer saltzen.

EAJk urtarrilaren 2ko arratsaldean Kale Nagusian izandako gertaeren inguruan informazioa eskatu du. Baduzue zerbait esateko gobernu taldeari?

Gauza gutxi daukagu esateko. Ez nator bat idatzi horretan EAJko udal taldeak esaten duenarekin eta ez zait ondo iruditzen aurrena idatzia publiko egin eta gero bideratzea udalera. Uste dut prozedurak alderantzizkoa izan behar duela. Guk ez dugu ezer esateko informaziorik ez dugulako. Ertzaintzaren esku hartze bat izan zen eta ez udaltzainek eta ez guk ez dugu gertatutakoaren inguruko berririk.

Zein mezu zabaldu nahi duzu herritarren artean?

Datuak hor daude. Ez gara ari gauzak ondo egiten, bestela intzidentzia tasa txikiagoa izango litzateke. Orokorren herritarrek ondo portatzen ari dira. Denon eskutan dago eta denok egin behar dugu ahalegina. Jartzen zaizkigun neurriak bete egin behar dira, musukoak, distantziak eta abarrak. Bestela ikusita dago nora goazen. Jendeari eskatuko nioke pixka bat gehixeago ahalegintzeko eta ezarritako neurriak mesedez betetzeko, denen hobe beharrerako baita.

32 positibo berri zenbatu dituzte azken orduetan Tolosaldean

Tolosa eremu laranjan dago 422,68ko intzidentzia tasarekin; Amasa-Villabonak eremu gorrian jarraitzen du

Erredakzioa

Osasun sailak COVID-19ari lotutako datuak eguneratu ditu eta horien arabera, 32 positibo atzeman dituzte azken orduetan Tolosaldean; hamaikana Tolosa eta Villabonan, bina Ibarra eta Zizurkilan, 4 Alegian eta bana Adunan eta Iruran. Datuak ikusita Amasa-Villabonak eremu gorrian jarraitzen du 692,92ko tasarekin eta Tolosa laranjan 422,68koarekin. Osasun eremuari dagokionez, Tolosaldea laranjan dago 496,14ko tasarekin.

Egindako test kopuruari dagokionez, herenegun 12.238 test egin zituzten, 817 positibo egon ziren (%6,7) eta horietatik 219 atzeman zituzten Gipuzkoan.

Tolosako Sarek eskerrak eman dizkie herritarrei

TOLOSA // Tolosako Saretik eskerrak eman nahi dizkiete Izan Bidea dinamikan antolatu diren ekimenetan parte hartu duten herritar guztiei, eta baita babesagertu dutenei ere. «Aurrerantzean ere, bidea elkarrekin murrizten jarraituko dugu preso eta iheslari guztiak etxeratu arte», adierazi dute Tolosako Sareko kideek.

Idazmen tailerra antolatu dute Plazida Otaño liburutegian

AIZTONDO // Plazida Otaño liburutegiak antolatuta urtarrilaren 18tik aurrera idazmen tailerra egingo da Zizurkilan. DBHko ikasleei zuzenduta dago eta Oihana Iguaran Barandiaran ariko da irakasle gisa. Izen emateak WhatsApp bidez egin daitezke 630 15 92 63 telefono zenbakian, zizurkiliburutegia@gmail.com helbidean edo bestela Aiztondoko liburutegira bertaratuta.

Bihar jarriko dute martxan Berastegiko Irakurle Kluba

Lehen saioan Karmele Jaio idatzitako 'Aitaren etxea' eleberria aztertuko dute; Ione Gorostarzu herritarra ariko da dinamizatzaile lanetan, bihar, 18:00etan, liburutegian

Irati Saizar Artola Berastegi

Irakurle Klubari ekingo diote bihar Berastegin eta parte hartu nahi duenak badu bertaratzeko aukera oraindik. Aurrez izena emateko eskatu dute, liburutegian bertan, liburutegia@berastegi.eus helbidean edo 637 846 385 zenbakian.


Beraz, Karmele Jaioen *Aitaren etxea* eleberria irakurrita duen edonork hartu dezake parte. Ione Gorostarzu idazle herritarra arduratuko da saioa gidatzeaz, eta hilean behin elkartzeko asmoa erakutsi dute. Bihar izango da lehena, 18:00etan hasita, udal liburutegian.

IRAKURLEAK ELKARTZEKO

«Badira irakurleak Berastegin, eta ez dira gutxi», dio Arritxu Uranga Berastegiko liburuzainak. Irakurle Klubaren helburua guztiak leku fisiko batean elkar-tu eta gai beraz hitz egitea dela esan du, «aditu talde bat edo sortzea».

Herriko ohiko irakurleak 50 urtetik gorakoak direla zehaztu du, eta hortaz, jende gaztea erakarri nahiko luketela dio Urangak. «Irakurle Klubaren funtzioa hortik doa pixka bat, irakurzale-tasuna bultzatu eta jendea liburutegira erakartzea nahi dugu». Era berean, aipatu du, jende gehienak gaztelaniaz irakurtzeko ohitura duela, eta hor ere jarri nahiko lukete arreta, euskarazko liburuak irakurtzera jende gehiago anima dadin. «Liburutegirako erosten ditudan liburuetatik %50 baino gehiago izaten dira euskaraz, hala ere, jendeak erdarazko ohitura hori du; ea pixkana aldatzen doan».

2016an jarri zen martxan udal liburutegia Berastegin, eta lehen irakurle kluba izango da honakoa. Liburuzainak aurreratu duenez, uste baino jende gehiago apuntatu da dagoeneko: «Gainera, lehen saioa, ezjakintasun horretan, zailena izan daiteke jendea animatzeko; espero dugu aurrera begira kluba handituz joatea, eta jende gehiago animatzea».



Berastegiko udal liburutegia ireki zutenetik, estreinakoz sortu da irakurle kluba eta lehen saioa izango dute bihar. IRATI SAIZAR



«Asmoa ez da nik hitz egitea, jendea zirikatatu nahi dut hitz egitera bultzatzeko»

IONE GOROSTARZU
IRAKURLE KLUBEKO
DINAMIZATZAILA

I.S.A. Berastegi

Irakurle klubeko dinamizatzailea izango da aurrerantzean Ione Gorostarzu berastegiarrak. Ilusio-

arekin eta gogoz dagoela esan du taldea martxan jartzeko, eta biharko saioan otsaileko liburu zehaztuta utzi nahiko luke.

Irakurle talde bat dinamizatzen duzun lehen aldia al da?

Ez, duela urte batzuk Amezketan aritu nintzen dinamizatze lanetan, eta orain herrian bertan arituko naizenez ilusioa egiten dit eta gogoz nago.

Nola iritsi zaizu aukera hori?

Amaia Azkue alkateak deitu ninduen irakurle kluba sortzeko asmoa zutela komentatzeko. Egia esan sekulako poza hartu nuen. Iruditzen zait Berastegin horrelako ekimen bat martxan jartzea gauza polita dela, eta dinamizatzaile izateko proposamena egin zidanean, segituan eman nuen baiezkua. Taldea sortzera zihola jakiteak ilusioa egin zidan, eta zer esanik ez nirekin gogoratzeak.

Nola antolatu duzu lehen saioa?

Nire lana, orokorrean, taldea gidatzea izango da. Liburu bigarren aldiz irakurtzen ari naiz eta

niretzat esanguratsuenak diren puntuekin gidoi bat ari naiz prestatzen. Hala ere, helburua ez da izango nik hitz egitea, baizik eta nire asmoa jendea zirikatzea da, hitz egitera bultzatzeko. Hortaz, galdera edo puntu batzuk apuntatu ditut eta ondoren, jendeak parte hartzea nahiko nuke. Eta nik esandako puntuez aparte, edozein ekarpen interesgarri egiten badute parte hartzaileek, hortik ere joan gaitezke. Saio irekia izango da.

Irakurritakoa komentatzeko lekua izango da, beraz.

Guztiari begiratuiko diogu, bai. Izan daiteke bai forma aldetik, baina baita kontatzen den edukaren aldetik ere. Nola sentiarazi gaituen, zer ikusi dugun, gus-tatu zaigun edo ez... Liburuaren inguruan tertulia bat egitea izango da, horrela, gainerakoen ikuspuntuak ezagutzeko aukera izango dugu.

'Aitaren etxea' eleberria aztertuko duzue. Zer dela eta?

Alkatearen deia jaso nuen momentuan bertan erabaki genuen.

Alde batetik, denen ahotan dabilen liburu delako aukeratu dugu. Irakurle talde batean komentatzeko, eta aztertzeko lehen liburu izateko, oso liburu egokia iruditzen zait. Gai asko ukitzen ditu, gainera. Azken boladan, irakurle talde askotan ari dira eleberri hori lantzen. Horrez gain, iruditzen zait irakurri beharreko liburu bat ere badela, azken urte hauetako liburu garrantzitsu bat izan da nire ustez. Gainera, puntu eta ertz asko dituen, askorako emango duelakoan nago.

Lehen hitzordua finkatuta duzue. Aurrera begira jarraitzea da asmoa?

Jarraipena eman nahiko genioke, noski. Hilabete behin elkartzeko da lehen asmoa. Osteguneko saiora hurrengo hitzorduetan lantzeko proposamen batzuk emateko asmoa dut, baina parte hartzaileen proposamenak ere entzun nahiko nituzke. Horrela, ideia da, ostegun bertan otsaileko liburu aukeratu uztea.

Mendi bizikletan aritzeko gunea egokitu dute Otsabin

Amasa-Villabonako Udalak hainbat herritarren laguntzarekin egin du; dagoeneko erabilgarri dago, eta udalak herritarrak gonbidatu ditu bertan kirola egitera

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Otsabi parkean, Pump Track edota mendi bizikletarekin aritzeko zirkuitua egokitu dute. Jolasa eta kirola uztartzea helburu duen azpiegitura udalak hainbat herritarrekin elkarlanean eraiki du.

Amasa-Villabonako Udalak, Belarmendi Mendiko Nekazaritza SL enpresaren bidez, zirkuitua eraikitzeke beharrezkoa zen lurra eta makinaria eskuragarri jarri zituen Otsabiko parkean eta herriko hainbat gurasok auzolanean burutu zituzten zirkuitua egiteko lanak.

Bada, Otsabiko parkean egokitze eta txukuntze lanak bukatu ez dituzten arren, zirkuitua dagoeneko erabilgarri dago, eta datozen egunetan jarriko dute bertako erabilerarako arau orokorrak azalduko dituen informazio kartela. Bertan zehaztuko da, esaterako, kaskoa jantzi beharko dela, motorrarekin sartzeari debekatuta dagoela edota adingabeek beti gutxienez heldu baten gainbegiradapean egon beharko dutela.



Mendi bizikletan aritzeko gunea jarri dute Otsabiko parkean. ATARIA

Amasa-Villabonako Udalak gunea egokitzeko herritarrek erakutsi duten «inplikazioa eta lanerako gogoia» eskertu nahi izan du, eta baita Belarmendiko langileena ere, «horri esker, azpiegitura eraikitzeke lanak erraztu eta merkatu baitira». Era berean, herrian kirola egiteko gunea berria izatea ere nabarmendu du: «Azpiegitura hone-

kin, mendi bizikletan ibiltzeko, kirol osasungarri hau praktikatzeke, jolasteko eta lagun artean ondo pasatzeko beste aukera bat eskaintzea lortu da eta hori oso positiboa da. Ondorioz, udalak Otsabiko parkera gerturatzeko eta Pump Track-a erabiltzeko gonbidapena egiten die mendi bizikletan ibiltzea gustatzen zaien herritar horiei guztiei».

Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanak hasi dituzte

Oinezkoek lehentasuna izango dute zortzi hilabeteko obren ostean; Larramendiko biribilguneko lanak ere aste honetan hasiko dituzte

Erredakzioa Tolosa

Bi obra garrantzitsuri ekingo zaie aste honetan Tolosan. Bate-tik, astelehenean hasi ziren Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanak, eta bestetik, aste honetan bertan hasiko dira Larramendiko biribilgunea egonkortzeko obrak.

Laskoain kaleko lanek zortzi hilabete iraungo dute, eta ondoren, oinezkoek lehentasun osoa izatea eta bertako merkataritza jarduera sustatzea nahi du udalak. Kaleko azpiegiturak eta zoru eraberrituko dituzte, espaloiak zabalduko dituzte, eta, besteak beste, hornikuntza sarea berritu eta hiri altzari eta lorategi berriak jarriko dituzte.

Obrak irauten duen bitartean trafikoa Paulo Rekondotik bideratuko dute, betiere etxeetako atarietara eta saltokietara oinezko sarbidea bermatuz. Paulo Rekondotik sartu beharko da Felipe Digiols-Laskorain aparkalekura, Foruen etorbideetik Lopez Mendizabal aparkalekura, eta Nafa-

rrua Etorbidetik Laskorain 14-16-18 eta Foruen 9 aparkalekuetara. Tarteka sarbidea galarazita egongo dela ohartarazi du udalak eta abisu bidez jakinaraziko duela astebete lehenago. Bestalde, biribilgunea bat sortuko dute Paulo Rekondo kale amaieran autoek buelta hartzeko.

LARRAMENDIKO BIRIBILGUNEAK

Larramendiko biribilgunea egonkortzeko lanak ere aste honetan hasiko dituzte. Biribilgunea diseinatu eta erdiko irlatxo eta plataforma eraikiko dituzte, zoladura konponduko dute, seinaleztapen horizontal zein bertikalak egokitu eta hobetuko dute, oinezkoentzako babes-hesiak jarriko dituzte arriskua dagoen zaitan egurrezko eta altzairuzko hesi mistoak erabilita eta oinezkoentzako pasabideetako galtzadarrapalak murriztuko dituzte eremua irisgarriagoa izan dadin. Lanek iraun bitartean trafikoa ez dute moztuko eta beharrezkoak den kasuetan bestelako pasabideak jarriko dituztela esan dute.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

1.353.514 euroko aurrekontua onartu du Amezketako Udalak

Iazkoarekin alderatuta 34.654 euro gutxiago izango dituzte 2021 urtean; hala ere, ahalegina egingo du udalak mahai gainean dituzten egitasmoak aurrera eramateko

Eneritz Maiz Etxarri Amezketa

Amezketako Udalak abenduaren 30ean eginiko ohiko osoko bilkuran onartu zuen aurtengo aurrekontua. Zehazki, 1.353.514 euroko aurrekontua izango du 2021ean, eta iazkoa baino 34.654 euro gutxiago izango dituzte, hau da, %2,5 txikiagoa da. Esan behar da, 350.000 euro, guztia-
ren ia %26a, azpiegitura berriak sortzeko edota daudenak hobetzeko bideratu duela udalak.

2020. urtean COVID-19ak eragindako egoera ekonomikoak ondorioak izan ditu finantza publikoetan ere, eta honenbestez, 2021. urtean eragina izango du. Diru sarreraren jaitsiera izan da, eta ondorioz baita aurrekontuaren jaitsiera ere. Baina, hala ere, Amezketako Udalak ahalegina egingo duela adierazi du mahai gainean dituzten egitasmoak aurrera eramateko, eta gastu maila nola edo hala mantentzeko.

Aurrekontuaren sarrerei dagokionean, diru sarreraren %47 inguru Gipuzkoako Foru Aldundiko Udal Finantziaziorako Funtsetik jasoko du; ia %29 udal zerga eta tasetatik eta %13 inguru, diru laguntzetatik eta ondare aprobetxamenduetatik. Ehunekoak, orokorrean, «2020koak baino baxuagoak» direla adierazi dute. Esaterako, «aldundiko funtsa 65.000 eurotan jaitsi da, eta diru laguntzak ere 35.000 eurotan jaitsi dira». Hori dela eta, gastuei aurre egiteko, «lehen aldiz azken 10 urteetan, eta Gipuzkoako udal askok egingo duten bezala, 130 mila euroko mailegu operazio bat aurreikusi da aurrekontuan, inbertsio desberdinei aurre egiteko. Urtean zehar aurrekontuaren garapen eta exekuzio maila nola doanaren arabera eskatuko da, osorik edo partzialki», argitu du Amezketako Udalak.

Aurrekontuaren gastuei begiraturaz gero, berriz, %32 pertsonalari dagokion atala da, %31 ondasun eta zerbitzuen atala, %8 diru transferentzien atala litzateke, eta horien artean, Amezketako hainbat elkarte edo Tolosaldea



Iazko urte amaieran hasi ziren lerabizkar errotako obrekin, eta aurten jarraituko dute. E. MAIZ

Garatzen, Tolosaldea Mankomunitatea edo Tolomendi dauke. Azkenik, %1,9 maileguen amortizazio eta interesen atala dago: «Azken kopuru hau ordainduta, Amezketako Udalak ez luke zorrik izango, baina aurretik esan bezala, ikusi beharko da 2021eko aurrekontuaren bilakaera eta mailegu bat hartzeko beharra», azpimarratu dute udaletik.

Inbertsionetara bideratu dutena gehitzea faltako litzateke, hau da, %26. Kasu honetan ere, 2020an baino pixka bat baxuagoa da, «nagusiki diru sarreraren jaitsieragatik».

GAKO NAGUSIEZ APARTE

Azpiegiturak, landa eremua, zerbitzu publikoak, eta saneamendua eta bidegorria ditu udalak ildo nagusitzat, baina bestelako gaiak ere nabarmendu nahi izan ditu.

Hirugarren adinekoen zerbitzua, Gaztelekua, udako ludotekaren zerbitzua, herritarren partaidetza, antolatzen diren festa eta kultur ekitaldiak edo euskararen erabilera bultzatzen jarrai-

ZENBAKITAN

Sarrerak

	Euroak
Zuzeneko zergak	201.750
Zeharkako zergak	55.000
Tasa eta bestelako zergak	145.600
Transferentzia arruntak	701.861
Ondare sarrerak	47.000
Kapital transferentziak	70.500
Finantza pasiboak	131.803

Sarreraren zenbatekoa: 1.353.514

Gastuak

	Euroak
Pertsonal gastuak	439.294
Ondasun arrunta eta zerbitzuak	425.955
Finantza gastuak	3.000
Transferentzia arruntak	109.405
Inbertsio errealak	350.000
Pasibo finantzierak	25.860

Gastuen zenbatekoa: 1.353.514

tzeko programak dira, besteak beste. Guzti horiek gauzatu ahal izateko dirua bideratu dute, eta baita herriko elkarte eta kirolarien diru laguntzetarako ere. Oro

har, 2020ko kopuruak mantendu dituzte.

PANDEMIA GOGOAN

Irizpide nagusi bat izan du Amezketako Udalak aurrekontua egiterako garaian: «Lehen seihilekoan pandemiaren ondorioak eta arauetako mugakizunak kontuan hartzen dira, eta urte arrunt batean antolatzen diren zenbait ekintza ez dira antolatuko». Aldiz, urteko bigarren seihilekoan, «egoera hobetuko eta normalizatuko den itxaropena dago, eta beharbada udaleko ekitaldien agenda ere bere horretara bueltatuko da».

Udaletik amezketar guztiei adierazi diete espedientea jendaurrean dagoela -15 lan egunetan-, edozeinek udalaren kudeaketa ekonomikoaren nondik norakoak jakiteko, edo iradokizun eta erreklamazioak jarri ahal izateko. Era berean, Amezketako Udaleko arduradunek garbi dute herritarren diruaren kudeaketa «gardena» egin behar dela, eta horregatik edonori diru publikoa zertan erabiltzen den azaltzeko prest agertu dira.

GAKOAK

1 Azpiegiturak. 2020 urte bukaeran Urzabal auzoan dagoen lerabizkar errota birgaitze-ari ekin zioten, eta 2021eko lehen hiruhilekoan lan hauekin amaitzea aurreikusten du udalak, 190.000 euro inguru inbertituz. Lerabizkar errota birgaitua Amezketako ondare eta turismorako gune berria izan dadila nahi du udalak. Bestetik, herriko kaleetako argiteriari bultzada emanez zenbait puntu berritzen jarraituko du, 25.000 euro bideratuz. Ugarte auzoan iaz egin moduan, herriko zenbait kaleetako barandak berritzeko 25.000 euro aurreikusi ditu. Larrunarri pilotalekuko teilatuan eguzki plakak jartzeko asmoa du 20.000 euroekin, eta azkenik, Beltzaren plazako eremua aisialdirako eta kirolerako azpiegiturekin egokitu nahi du, 40.000 euroekin.

2 Landa eremua. Urtero bezala, landa eremuko baserri bideak eta Larrondoko mendi publikoko azpiegiturak hobetzen jarraituko du udalak, eta horretarako 80.000 euro inbertituko ditu.

3 Zerbitzu publikoak. Udalak dituen zerbitzu publiko ezberdinen mantenu eta hobekuntzarekin jarraitzea du helburu, eta kopuruak aurrekoak baino txikiagoak izanda ere, guztien baturak kopuru garrantzitsua egiten du.

4 Saneamendua eta bidegorria. Urrats berriak ematea du helburu udalak. Azken hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako departamendua azpiegitura honen exekuzio proiektua idazten egon dela adierazi dute, eta aste gutxitan formalki onartuko dela. Esan behar da Amezketako Udalarik tokatzen zaiola proiektuaren zenbait atal lantzen eta koordinatzen, 2022 urteko erdi aldera obrak hasi ahal izateko. «Edonork pentsa lezake epe luzeegi jotzen dutela, baina horrelako azpiegiturek administrazio desberdinetako baimen asko behar dituzte, eta hori bideratzen hilabeteak pasa ohi dira», adierazi du Amezketako Udalak.

Iraiti Saizar Artola Belauntza

Ia bi urtez itxita egon ondoren, hilabete darama zabalik Belauntzako ostatuak. Iruran bizi diren Ana Muñoz eta Amaia Ezeizak hartu dute ostatua kudeatzeko ardura, eta momentuz, «oso pozik» daude izan duen harrerarekin.

Abenduaren 12an ireki zenituzten ateak, pandemiagaraian.

Amaia Ezeiza: Ingurukoek ere esaten ziguten ea erotuta ote geunden egoera honetan ostatu bat hartzeko. Baina animatu egin gara.

Ana Muñoz: Guk ere geure buruari galdetu diogu ea ondo egin ote dugun gauden egoeran egonda, baina tira, momentuz oso-oso pozik gaude. Ezagun batek komentatu zidan Belauntzan ostatua itxita zegoela eta aukera ona izan zitekeela hartu eta martxan jartzea. Amaiarekin hitz egin nuen eta horrela animatu ginen.

Ostalaritzan aritutakoak zaretze aurretik?

A. E.: Urte asko atzera eginda, lagun batekin batera Anoetako Goikoetxea taberna eduki nuen denbora tarte batean. Geroztik beti aritu izan gara biok ostalaritzari lotutako lanetan.

Hilabete bat daramazue ireki zenutenetik. Zer moduzko hasiera izan duzue?

A. E.: Oso-oso gustura gaude egia esan. Jende asko etorri zaigu orain arte, asteburuak gainezka izan ditugu.

A. M.: Nabari da jendeak bazuela gogoia herrian taberna bat irekita izateko. Izan ere, ostatuaz gain, ez dago beste lekuri kafe bat hartu edo zerbait jateko. Negan hartu dugu eta pena da terraza ezin dugula nahi beste aprobetxatu, baina lekua zoragarria da.

Gabonekin eman diozue hasiera etapari. Pozik beraz?



I.S.A.

«Nabari da jendeak bazuela herrian taberna bat irekita izateko gogoia»

ANA MUÑOZ ETA AMAIA EZEIZA BELAUNTZAKO OSTATUKO ARDURADUNAK

Belauntzako ostatua berriro ireki denetik, parrilan egindako txuleta da bere berezitasuna; bertako produktuak erabiltzen dituzte sukaldean, etxeko janaria prestatzeko

A. E.: Jendeak oso ondo hartu gaitu, alde horretatik oso pozik gaude. Bazkaltzera datozen bezeroak ere pozik ateratzen direla esaten digute eta seinale ona da.

A. M.: Uste baino jende gehiago ibiltzen da herrian, mendira etorrita edota paseoan.

A. E.: Beti dauzkagu gainera haiaiketako egiteko jakiak: salda, haragi egosia, txorizoa...

Eta otorduak?

A. M.: Janari tradizionala prestatzen dugu. Esaterako, bi lapiko

berezi dauzkagu babarrunak prestatzeko. Burdinazko egitura baten barruan, goialdean, eltzea jartzen da babarrunarekin, eta behe partean, ikatza sartzen da. Sutan egin ordez, ikatzaren bero-tasunarekin egiten dira. Bere sakramentu guztiekin zerbitzatu ohi dugu, eta sekulako arrakasta ari da izaten. Gainera, herriko babarruna erabiltzen dugu, bertako baserritar batek ekartzen diguna.

A. E.: Bertako produktuak erabil-

tzen ditugu, bai. Gazta ere Belauntzako daukagu, eta esnea ere herrian bertan erosten dugu, baita arkumea ere.

Zer eskaintza egiten duzue?

A. E.: Astelehenetik ostiralera eguneko menua eman ohi dugu, 12 euroren truke. Ireki genuenean, pixka bat ikusi egin nahi genuen jendeak zer eskatzen zuen, eta hasiera batean plater konbinatuak prestatzen hasi ginen. Orain, ordea, eskaintzeari utzi diogu, izan ere, asteburuetan jende asko datorkigu eta gure berezitasuna parrilan egindako txuleta denez, hor zentratu gara. Parrila ederra daukagu sukaldean, eta parrilaz arduratzen denak sekulako haragia ekarri eta prestatzen digu. Jendea horren bila dator. Esate baterako, asteburuko menuan, urdaiazpiko iberikoa, frijituak, hor tartean etxean egindako kroketa eta

muskuiluak, parrilako txuleta, postrea, kafea eta edaria 26,90 euroren truke eskaintzen dugu.

A. M.: Norbaitek haragia jan nahiko ez balu, beti edukitzen dugu arrainen bat aukeran. Baina, normalean, jendea haragia jatera dator. Parrilan aritzen denak berak zerbitzatzen du txuleta mahaira, eta bezeroen aurrean moztzen du. Erretilu berezi batzuk ditugu gainera, haragia bero mantentzeko: Belauntzako arotz batek egur zati batzuk prestatu dizkigu eta horren gainean, labean berotutako plater moduko bat jartzen dugu, moztutako haragi zatiak gainean utzi eta jan bitartean haragia bero mantentzeko.

Zein ordutegi duzue?

A. E.: Orain arte egunero irekitzen genuen, baina hemendik aurrera astearteetan itxi egingo dugu eta asteko jai eguna egiten hasiko gara egun horretan. Gainerakoan, 10:00etan irekitzen dugu eta orain 20:00ak arte egoten gara. Ixteko ordu muga aldatzen dutenean, gauetan plater konbinatuak eta ogitartekoak eskaintzen hasiko gara.

Bi urtez itxita egon da ostatua. Aldaketaren bat egin diozue ireki aurretik?

A. E.: Gauza txikiak egin dizkiogu, txukundu gehienbat. Adibidez, Kaiz loradendakoak dekorazioaz arduratu dira, pintatu egin dugu, telebista jarri dugu eta koadro batzuk ere jarri ditugu apaintzeko.

Haurrentzako parke bat ere badu ostatuak.

A. E.: Ostatuaren atzeko zelaia berriro egin zuen udalak 2019an eta haurrentzat jolastoki bat egokitu zuen beheko solairuan. Pandemia egoeratik, ordea, itxita daukagu orain. Guztia pasatzen denean, eta neurriak arintzen direnean, aukera izango dugu atzeko zelaian mahaia eta aulkiak jartzeko eta lasai ederrean familia giroan egoteko.

Hilberriak eta urteurrenak



Patxi Furundarena Lasa

Soinuaren doinurik goxoenek lagun zaitzazela zure bidaian.

- Goian bego -



osadar



Goizeresi Txistulari Taldea
Aurtzaka eta Ostadar Dantza Taldeak

BEASAINen, 2021eko urtarrilaren 13an



Patxi Furundarena Lasa

Urtarrilaren 7an hil zen 84 urterekin.

Lizartatik Goierriera etorritako Patxik edo Pakok, gustura emango lizkizueke eskerrak 84 urte hauek zorionez betetzen lagundu diozuenei: Fabrika handiko lankideak, Ikastolako bidelagunak, udalekuetako kuadrilla, lagun eta senitartekoak.

Bidea da helburu, egin dezagun "pokili-pokili"...

Familia

DONOSTIA-ORDIZIAN, 2021eko urtarrilaren 13an

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

Tolosa CF-ko atleten emaitza aipagarriak Euskadiko Kopan

Pista estaliko aurtengo lehen txapelketan, emakumezkoen taldea podiumean sartu da hirugarren postua eginez, eta gizonezkoen taldea laugarren izan da

Imanol Garcia Landa

Urtea indartsu hasi dute Tolosa CF-ko atletak. Pista Estalian Euskadiko Kopa izan da jokoan aurreko larunbatean Donostian, eta emakumezkoetan podiumera igotzea lortu dute, hirugarren postua lortuz. Iazkoan, bigarren izan ziren Tolosa CF-koak. Gizonezkoek iazkoa baino postu bat gorago egin dute, laugarren bukatuz. Lander Gil atletismo saileko lehendakariak azaldu duenez, «gustura gaude lortutako emaitzekin. Gure helburua emakumezkoetan aurreko urtean egindakoari ahalik eta gehien hurbiltzea zen, eta mutiletan pixka bat hobetzea. Gizonezkoetan iazkoan baino puntu gehiago lortuz postu bat aurrera egin dugu, eta emakumezkoetan, nahiz eta postu bat beherago jaitsi, txapelketa oso interesgarria egin dute, emaitza oso onekin».

Atletismoak badu bere alde indibiduala, atletak ahal duen marka eta emaitza onenak lortzen saiatzen direlako, baina talde izaera ere baduela nabarmendu du Gilek: «Txapelketa batzuk badaude taldeka egiten direnak, eta horren adibide da asteburuan egindakoa. Eta horrek talde giroa ere bultzatzen du, atleta bakoitzak ahal duen emaitza onena lortzen saiatzen delako taldearentzat». Konfinamenduaren ondoren banaka entrenatzen hasi ziren atletak, ordu bereziekin eta talde txikiagotan, eta taldekako txapelketak ondo etortzen direla azaldu du Gilek, «talde sen hori berreskuratzeko».

Aurreko urtea bukatu aurretik, pista estaliko 16 urtez azpiko Espainiako Txapelketa jokatu zen, eta bertan klubeko lau atleta izan ziren. Berez, martxoan jokatzea zen txapelketa hori, baina konfinamendua iritsi zen eta azkenean abenduan egin ahal izan zen. June Sudupek eman zuen ezustekorik handiena, oso entrenamendu gutxiarekin joan baitzen Madrilera. Halere, bere maila erakutsi zuen eta 600 metroko proban laugarren izan zen,



Ezkerrean, Euskadiko Kopan parte hartu zuten atletak. Eskuinean, Ander Martinez de Rituerto (irudian, ezkerrean). ATARIA



Hodei Caballero martxalaria. ATARIA

dominatik eta Gipuzkoako errekorretik oso gertu, 1.37,50ko markarekin.

Manex Civicok ere lasterketa ederra egin zuen, kasu honetan 3.000 metrotan eta bosgarren postu bikaina lortu zuen 9.19ko denborarekin. Ane Martinek ere 3.000 metroak egin zituen eta 10.59ko denborarekin postu bera lortu zuen bosgarren helmugaratuz. Ander Aristik 60 metro hesiak egin zituen, eta nahiz eta bere marka pertsonala hobetu 8,92rekin, ehuneko bakarrarengatik ezin izan zuen finalerako sailkatu.

Meritu handia eman die Gilek lau atleta gazteei: «Txapelketa oso interesgarria da, are gehiago kontuan izanik kadete mailan oso zaila dela Espainiako Txapelketa batera joatea, eta gainera emaitza onak lortzea. Horrez gain, kontuan izan behar da pista estaliko egungo neurriak direla-eta, ez zela nahikoa gutxiene-

ko marka lortzea parte hartzeko txapelketan, proba bakoitzeko marka onenetan egon behar baitzen bertara joateko».

EUSKADIKO MARKA PERTIKAN

Urte bukaerak ere beste hainbat emaitza aipagarri utzi ditu atletismoan. Ander Martinez de Rituertok, esaterako, 18 urtez azpiko pista estaliko Euskadiko errekorra egin du pertikan bi aldiz jarraian. Lehenbizi 4,55 metro jauzia egin zuen, eta egun batzuk geroago bost zentimetrotan hobetu zuen marka, 4,60 metrotan utziz.

Bestalde, abenduaren hasieran, Hodei Caballero 18 urtez azpiko Gipuzkoako marka egin zuen 10 kilometro martxako proban, 48.50ko denborarekin, Getafen (Espainia) egindako Cerro Buenavista martxa sarian. Tolosa CF-ko bi atleta gazteek beren maila ona erakusten ari dira, eta horren adibide dira azkenaldian lortutako marka horiek. «Atleta bakoitzaren hobekuntza bilatzen da klubean, eta beraien markak hobetzen ari direla ikustea pozgarria da. Gainera horiek Gipuzkoako edo Euskadiko errekor bilakatzen badira, are pozgarriago izaten da. Espero dugu hazkuntza hori jarraipena ematea», azaldu du Gilek.

Pista estaliko denboraldian dago murgilduta Tolosa CF, eta hurrengo txapelketa Euskadikoa izango da, maila absolutukoa. Urtarrileko azken asteburuan izango da hori.

«COVID-19a dela-eta ezarritako neurriengatik, Gipuzkoako Federazioak ezin ditu txapelketak antolatu, baina Euskadikoak bai», zehaztu du Gilek. «Euskadiko Federazioak ere aukera askeko probak antolatuko ditu, eta hilaren 16an mota horretako proba bat izango da».

Bestalde, klubetik nabarmendu dute kirolean orokorrean COVID-19aren kutsatze tasa «oso oso baxua» dela. «Orain eskola kirola egiten hasi ahalko da berriro, eta albiste ona da hori», esan du Gilek. «Kasu horretan, ez bakarrik kirola egitearen onurarentzako, baita haurren garpenerako ere. Kirola, orokorrean, oso garrantzitsua da pertsona baten egunerokotasunean. Kirola egiten duen pertsona batek sedentarioa den beste batek baino osasun hobea izaten du, eta horren garrantzia ere nabarmendu nahi dugu».

Urte bukaerak ere aldaketak ekarri ditu Tolosa CF-ko atletismo saileko zuzendaritzan. Josu Gomez zen ordura arte lehendakaria, eta kargua utzi du, Hego Afrikan baitago lanean. Bestalde, Maddi Lillok zuzendari teknikoaren postua ere utzi egin du, kanpora ikastera joan baita. Lander Gilek hartu du lehendakari kargua, eta zuzendaritzan Xabier Artieda eta Aitor Zabala sartu dira, zuzendari teknikoaren lanak egiteko. Aurretik zuzendaritzan zeuden Ivan Gallegok eta Ander Ortizek bertan jarraituko dute.

Bi edo hiru aste egongo da Iñaki Artola frontoietatik kanpo

Erredakzioa

Herenegun egindako proba medikuen arabera, Iñaki Artola zuntz haustura du eskuin izterreko biceps femoralean, eta bi edo hiru aste pilotalekuetatik kanpo izango dela aurreikusten da. Igandean jokaturako binakako txapelketako partidari hartu zuen min.

Alegiako aurrelariak, beraz, baja hartu du eta fisioterapia tratamendua hasiko du. Ostiral honetan zuen hurrengo partida binakakoan, eta bere ordeez Bengoetxea VI.ak jokaturako du.

JAKAK BIGARRENA ERE GALDU

Herenegun gauean jokatu zuten Jaka-Martija bikoteak binakako txapelketaren bigarren partida, eta hau ere galdu egin zuten. Elezkano II-Zabaleta izan zituzten aurrean, eta 19-22 izan zen azken emaitza.

Jaialdi berean, Iker Elizegik ere bere bigarren partida jokatu zuen promozio binakako txapelketan, eta Bakaikoa aurrean zuela, 17-22 galdu zuen Alberdi-Salaverri II bikoaren aurka. Punturik ez du batu oraindik asteasuarak.

Lopetegik 2024 urtera arte luzatu du bere hitzarmena Sevillekin

Erredakzioa Asteasu

Julen Lopetegik entrenatzaile asteasuarak bere hitzarmena luzatu du, 2024 urtera arte, Sevilla futbol taldearekin. Bi urterako luzatu du, beraz, Lopetegik bere lotura taldearekin, 2022ra arte hitzartu baitzuen hasiera batean. 2019ko udan iritsi zen asteasuarra Sevillekin, eta sekulako emaitzak lortu ditu: 2020ko Europa League irabazi zuen taldeak, eta Espainiako Ligan laugarren sailkatu zen, Champions League lehiaketarako sailkatuz. Horrez gain, aurtengo denboraldian Champions Leagueko final zortzirenetara sailkatu da.



ASTEAZKENA, 2021EKO URTARRILAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Egoerak baldintzatuta 400 pertsonak jarraituko dute Ataria Bertso Jaialdia larunbatean Leidorren; 90 sarrera baino ez dira geratzen

Urteroko bertso hitzordua

Erredakzioa

Tolosako Leidor aretoak urteroko Ataria Bertso Jaialdia hartuko du larunbat honetan. Saioa 18:00etan hasiko da eta Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Sustrai Colina ariko dira bertsotan eta Amaia Agirrek egingo ditu gai-jartzaile lanak.

Saio berezia izango da aurtengo egoerak eskatutako segurtasun neurri guztiak bete beharko baitira. Aforoari dagokionez gehienez 400 lagunek jarraitu ahal izango dute saioa Leidorren bertan. Saioa ikusteko sarrerak



lazko saioa une bat. ITZEA URKIZU

atzo jarri ziren salgai, eta 90 baino ez dira geratzen. Gaur eta bihar ere erosi ahaliko dira Ataria-ren egoitzan, Tolosako San Esteban auzoko 20. zenbakian.

Atarikideek 15 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitza eta gehienez bi erosi ahaliko dituzte prezio horretan. Bi sarrera baino gehiago erosteko, sarrera bakoitzarengatik 17 euro ordaindu beharko dituzte eta pertsona bakoitzak gehienez 7 sarrera erosi ahal izango ditu; hau da, 2 sarrera Atarikide prezioan eta beste bostak 17 euroan.

Atarikide ez direnek berriz, 17 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitzeko, eta pertsona bakoitzak gehienez 5 sarrera eskuratu ahal izango ditu. Gaur (atarikideek soilik) eta bihar 10:00etik 13:00etara eskuratu ahaliko dira egoitzan, beti ere sarrerak agortzen ez badira.

ASTEAZKENA 13

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Lanaren burujabetza. Kooperatibismoa eta tokiko garapen eraldatzailea: herri kooperatibarentz formazio saioa, Herribizigune elkar-teak antolatuta, 17:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Tolosa. Suakairen *Luces, musical ¡Acción!* ikuskizuna, 19:00etan, Leidor aretoan.

Erakusketak

Tolosa. EmPoderArte eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako *Sorginak!* erakusketa, Aranburun.
Ibarra. Galtzakomik erakusketa Kultur etxean. Galtzakomik lehiaketara aurkeztutako lanak jarri dituzte.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Goizeko magazina, Asier Imazekin: Iker Ibarluzeare-

kin eguraldiaren iragarpena, eskainitako abestiak, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tartearak...

15:00. Desafioa. Herri kirolak.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko magazina.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Hiri baratzea

11:30. Gaurkoan Tolosalde

17:00. Martaren eskulanak

17:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Urrutiajunbea

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroarekin jarraituko dugu. Zeruan hodeiak nagusituko dira, batez ere goizean, eta euri zaparradaren bat izango da. Arratsaldean giro ateria izango dugu eta ostarte batzuk zabalduko dira. Haizeak mendebaldeko ukitua izango du eta tenperatura zertxobait igoko da, maximoak 8-10 graduan geratuz.

Bihar. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta giro argi eta atsegina izango dugu. Arratsaldean zehar hodeitza trinkotu egingo da eta azken orduetan euri pixka bat egingo du, zaparrada ahul modura. Haizeak mendebal/ipar-mendebaldeko ukitua izango du eta tenperatura maximoak 9-11 graduan kokatuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

- SARRERAK SALGAI ATARIAKO EGOITZAN.
SAN ESTEBAN AUZO 20, TOLOSA.

- ATARIKIDEENTZAT:
URTARRILAK 13 GOIZEZ 10:00 ETATIK 13:00 ETARA.

- GAINONTZEKOENTZAT:
URTARRILAK 14 GOIZEZ 10:00 ETATIK 13:00 ETARA.

- ATARIKIDEAK 15€, BESTEAK 17€.

- GEHIENEZ 2 SARRERA ATARIKIDE PREZIOAN.

- GUZTIRA GEHIENEZ 5 SARRERA PERTSONAKO.

- EZ DA SARREREN ERRESERBARIK ONARTUKO.

- SARRERAK EROSTEAN OSASUN NEURRI GUZTIAK
BETETZEA BEHARREZKO 1ZANGO DA.